



Pil-pilean

TRINIDAD
Soraluzeko hilabetekaria
2022ko otsaila · 383 alea



SAPA
HASI DA
ERALDAKETA



PIL-PILEAN 383

2022ko otsaila

Azaleko argazkiaren egilea:
Ubane Madera.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|--|
| 4 | Elkarrizketa Javi Bucos, Aranzxadi Zientzia Elkarteko historialaria | IRITZIA |
| 6 | Begira Porturantz | 3 |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | Neuretik Nikolas Morillo <i>Adinekoa naiz, ez memeloa</i> |
| 14 | Argazki bidez Santa Eskea | 18 |
| 16 | Ugaraxo Bigarren zikloko ikasleak buru-belarri lanean | Gutunak Tere Guenetxea <i>Artikuluarenizenburua</i> |
| 20 | Erreportajea SAPAko lehen pabiloirako proiektua abian | 18 |
| 26 | Kirola Boxeo eta Itzulia | Komiki tira |
| 29 | Kultura Aratosteak eta danbolin ikastaroa | 19 |
| 30 | Gure artistak Mikel Oregi <i>Katxo</i> | Hausmarketa Dorre eolikoak Karakaten |
| 32 | Sakonean Maria Pilar Etxeberria | 19 |
| 34 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | Puntua Nerea Isasti <i>Industria Aurriak</i> |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Adinekoa naiz, ez memeloa



NIKOLAS MORILLO

Honako artikulua hau El País egunkarian azaldu da: "Carlos San Juan de Laorden valentziarrak (urologoa eta zirujaua) banku-sukurtsaletan arreta pertsonala eskatzeko abiarazi duen sinadurak biltzeko kanpainak eragin sozial ezohikoa izan du. Bere arrakastak sakoneko akatsen bat erakusten du, ikusezinegia: eten digitalak elkarriketa publikoaren topiko fina izateari utzi eta gizarte digital berriaren utzikeria egoistaren seinale bihurtu beharko luke. Ia 80 urte ditut eta pena handia ematen dit bankuak ni bezalako adineko pertsonen ahaztu direla ikusteak. Orain ia dena Internet bidez da, Change.org plataforma digitalean 650.000 sinadura baino gehiago dituen eskaera egin da".

Horrek, nire ustez, honako azterketa hau egitera garamatza:

Gaur egun, teknologia berrien bidez erosotasun eta abantaila handiak dakartzaten hainbat zerbitzu eskura daitezke, adibidez: prentsa digitalerako sarbidea (egunkariak), Pil-pilean, Osakidetzako hitzorduen kudeaketa eta historial medikoetarako sarbidea, garraio publikoen ordutegiak, erakunde ofizialetako izapideak, banku-kontuetarako sarbidea, eta abar. Adineko pertsona askok ezin hobeto menderatzen dituzte eta abantaila eta erosotasun ukaezinak dakarzkie. Adibide pertsonalak jar ditzaket gure herrian. Baina guztiak ez dira gai teknologia berriak erabiltzeko eta horrek EZ du ekarri behar haiek abandonatzea.

Guztion artean lagundu genuen «Aurrezki Kutxak» garatzen. Gogoan dut gure asteko ordainsariaren pezeta batzuk aurrezten genituenean eta astelehenean gure kartillan aurrezten genituenean. **GAUR EGUN ZILEGI AL DA GU ABANDONATZEA ERRENTAGARRIAK EZ GARELAKO?**

Nire ustez, pilota ez dago banketxeen teiltuan, administrazioen teiltuan baizik. Uste dut zerbitzu hori zerbitzu publiko batzuk bezala hartu -osasuna, hezkuntza, kirol-jarduerak e.a. - eta bi esparrutatik bultzatu behar direla.

Batetik, banketxeei eskatu behar zaie adinekoei arreta berezia ematea. Dagoeneko 101.000 milioi euroko ekarpena egin dugu bankuen erreskatean, iturri batzuen arabera. Azken berrien arabera, hasi dira ematen lehenen urratsak arlo horretan administrazioen aldetik, baina adi izan behar gara ea nola geratuko den.

Bestetik, gugandik hurbilen dauden administrazioen egin beharra da Informazioaren eta Telekomunikazioaren Teknologien trebetasunak eskuratzeko interesa duten adinekoei zuzendutako tailer eta ikastaroen bidez laguntzea.

Arazo hau konpontzeko guztion ahalegina behar da.

**BANKETXEENA
ZERBITZU PUBLIKO
MODURA HARTU ETA
BULTZATU BEHARKO
LITZATEKE**

“Orain da errepresio mota horiek jasotzeko momentua”

TESTUA ETA ARGAZKIA: UBANE MADERA ZANGITU

Soraluzeko memoria historikoa batzeko bi urteko ikerketa abiaraziko dute, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik. 1936tik gaur egunera arte soraluzetarrek pairatutako errepresioa jaso nahi da, izen-abizenekin, gertatutakoaren erradiografia osoa izateko. Martxoan, zuzeneko testigantzak batzen hasiko dira. Horretarako, Oroimen Bulegoa egokituko dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Aranzadiko Javi Bucés historialariak eman ditu xehetasunak:

Zein joan daiteke Oroimen Bulegora?

Errepresioa zuzenean jasan dutenak; errepresioa jasan dutenen senideak; errepresioa jasan duten hirugarren pertsonen berri eman nahi dutenak; gaiari buruz dakiten pertsona klabeen berri eman nahi dutenak edo senideren baten edo gertukoaren informazio eskatu nahi dutenak. Bulegoan Aranzadiko adituak izango dira, martxoko eguaztenetan, 10:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 18:00ak arte.

Zein da helburua?

Errepresaliatuak identifikatzea. Batzuetan jendeak datu asko ditu, bestetan bakarrik izen-abizenak. Batzuetan testigantzak ez dira zuzenak, hau da, errepresioa ez du pertsona horrek zuzenean pairatu, baina konta dezake garai hartako bizitza zelakoa zen, adibidez, gerran edo gerra ostean. Norbaitek dokumentazioa baldin badu, hura ekarri, eskaneatu eta ikerketan gehituko dugu. Gerra garaiko edo frankismoaren lehen urteko garaiari dagokionez, normalean, senideak etortzen dira.

Eta Gertuko Oroimenarekin lotutakoak?

Gertuko Oroimenarekin beste errepresio mota eta giza eskubide urraketa batzuk identifikatzen ditugu: hilketak, torturak, mehatxu larriak, estortsio ekonomikoa... normalean etortzen direnek euren testigantza ematen dute, baina beti ez. Adibidez, errepresioa Burgosko prozesuan gertatu bazen, baliteke pertsona hura dagoeneko ez egotea.

Soraluzen 1936ko lantaldeak egina du lanketa bat...

Bai, halakoetan kontrastatu egiten dugu, egileekin egon, informazioa eskatu...

Beste nonbait ere egin duzue halakorik?

20 bat herritan ari gara lan bera egiten: Donostia, Tolosa, Hernani, Orio, Galdakao...

Zelako erantzuna lortu duzue?

Oso ona. Lana metodologia zientifikoarekin egiten dugu eta oso inportantea da alderdi politikoen adostasuna izatea, Soraluzen bezala. Gertuko Oroimenarekin, biktima batzuei asko kostatzen zaie guregana etortzea. Baina orain da errepresio mota horiek jasotzeko momentua, bestela hilketak bakarrik geratzen dira eta hortik ez gara aterako. Batzuek testigantza eman nahi dute, baina ez dute publiko egin nahi. Hori ere errespetatu egiten da. Eta publiko egiten da pertsonak nahi duenean, izan daiteke 20 urte barru, hiltzen denean... Baina inportanteena kontatzea da. Orain ez bada jasotzen, ez da existituko. Orain erraztasun guztiekin jasoko dira testigantzak.

Zenbat lagunek diharduzue lanean?

Lantaldean zazpi pertsona gaude. Oroimen Bulegora bi etorriko dira. Beste talde bat dugu artxibotan ikertzeko (militarretan, estatukoetan, Euskal Herrikoetan...) eta beste talde bat datuak filtratzeko eta eskaerak egiteko beste hainbat artxibotan. Aditu batzuk Oroimen Historikoarekin espezializatuta daude eta beste batzuk Gertuko Oroimenean. Gehienak gara historialariak edo kriminologoak.

Bi urte barru amaituko da lana?

Ez da bukatzen inoiz. Bi urte barru webgunea aurkeztuko dugu eta emaitzak azaldu, baina ikusiko da konpletoa den ala testigantza asko falta diren. Adibidez, Hernanin, behin bukatuta, urteroko jarraipena egiten dugu.

Ondoren egingo da zerbait politikoki?

Politikariak beti ari dira egia, justizia eta errepresioa batzuei aitortu, beste batzuei ez... Gure lanarekin, hortxe dute sailkapen. Berdin da biktimarioa, giza eskubideen urraketak denontzako dira eta hori dokumentatu egiten da. Politikariek erabakiko dute horrekin zer egin edo ez egin ezer.



Porturantz

ARGAZKIA ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Jendetza batu zen joan zen barikuan Ines Osinagak eta Joseba Sarrionandiak eskaini zuten emanaldia ikustera, ehun eta hirurogei herritar inguru; gazte, heldu, emakumezko, gizonezko eta erdiak baino gehiago herritik kanpokoak. Ia bi orduko emanaldia eskaini zuten; Osinagak Gosariak diskoko kantuak interpretatu zituen trikitia, autotunea eta bere ahots ahaltua baliatuta. Sarrik, berriz, kantuen gaineko azalpenak eman zituen berbaz, belarrien eta arimaren gozagarri. Aipagai izan zituzte gaien artean prostituzioa, erotasuna, kartzela, askatasuna, maitasuna, bizitza, Palestina, euskal nazioa... Eta azken honi loturik, itsaso zabalean nabigatzen jarraitzeko baliagarri izan daitezkeen irudi eta hitz ederrak: "Ikusten da porturik? Ez dugu ikusten, baina imajinatzen dugu. Imajinatzen dugu eta haruntz goaz arraunean."







Eguaztenean 40 bat herritar elkartu ziren gaztetxean.

Kezka dorre eolikoengatik

Otsailaren 14an aurkeztu zuten udaletxean Karakatetik Akilar bitartean bi dorre eoliko erraldoi ipintzeko asmoa; Capital Energy enpresako ordezkariak bertaratu ziren; herrian hasi da kontrako mugimendua

Karakateko antenatik 200 bat metro aurrera egin eta hortik Akilar bitartera, 170 metro altu (30 solairuko etxe bat beste) diren bi dorre eoliko ipintzeko asmoa aurkeztu zion Capital Energy enpresak Udalari. Datozen asteotan proiektua tramitatzen hasiko dira. Horren ondoren, lehiaketa deituko dute beste enpresa batzuk ere aukera izan dezaten proiektura aurkezteko eta gero zabalduko da alegazioak egiteko eta Igurumen Eragina idazteko epea, besteak beste.

Udal ordezkariak kontra

Egitasmoak berehala eragin ditu kezka eta ardura herritar ugariren artean. Udal

ordezkaritza duten hiru alderdiek (EAJK, PSE-EEK eta EH Bilduk) jakinarazi dute egitasmoaren kontra daudela. Iragarri dute datorren martxoaren 2an -eguaztana-osoko bilkura ezohikoa egingo dela eta bertan kontraktotasun hori adierazten duen mozioa debatitu eta onartuko dela. Halaber, asmoa dute datorren astean bertan herritarrek deitzeko proiektuaren kontrako elkarretaratzerara. Ezustekorik ez bada, eguenean bertan. Horrez gain, jakinarazi dute, bestek beste, Udal Idazkaria ari dela aztertzen ea Dolmenen Ibilbideak eta aurreko eremuak izan dezakeen babesa baliagarri izan daitekeen egitasmoari

aurre egiteko. Eta iragarri dute proiektuari alegazioak aurkezteko asmo sendoa dutela. Hori bai, gogora ekarri dute baimenak ematerako orduan, Eusko Jaurlaritzak duela azken berba.

Herritarren mugimendua

Herritarrei dagokienez, berriz, eguaztenean, gaiari buruzko batzar irekia izan zen gaztetxean. 40 bat lagunek parte hartu zuten. Besteak beste, erabaki zuten herritar taldea sortzea proiektuari aurre egiteko eta dagoeneko hainbat ekimen ere erabaki ziren. Adibidez, gaur, barikua, Soraluzen izango den Diputazioko ordezkariak herritarren kezka helaraziko zaie zuzenean; datorren asteko osoko bilkuran parte hartzeko deia egin da baita Udalak deituko duen elkarretaratzean ere.

25x25eko oinarria

Dorre eolikoek ez ezik, dorreak eurak eraikitze beharrezko egiturak ere eragin zuen ardura eguaztenean batzarrean. Jakinarazi zuten 3 metro sakon zulatu behar dela mendia dorreak ipintzeko eta 25x25eko oinarria (Zubi Nagusia bestekoa) behar dutela, baita euren artean komunikatzeko bidea ere, hori guztia hormigoizkoa, noski. Horrez gain, pentsatzekoa da errepidea ere handitu egin beharko dutela, gailuak mendira igo ahal izateko.

DORRE EOLIKOEK EZ EZIK, DORREAK ERAIKITZEKO BEHAR DEN OBRAK ERE ERAGIN DU ARDURA

M8 aldarrikatzeko egitarau betea

"Berdintasun osoa eta eraginkorra" exijitzeko protesta zein kultura ekimenak egingo dituzte martxoaren 4tik 25era bitartean

Datorren astean hasi eta martxoaren 25era bitartean egingo dira Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako ekitaldiak.

Protesta ekimena, manifestazioa, Soraluzeko M8 Plataformaren eskutik etorriko da. Hori Martxoaren 8an bertan izango da, 18:30ean, Plaza Berritik abiatuta. Manifestazio zaratatsua izango da eta eskatu dute norberak eramateko zarata egiteko gailuak. Manifestazioa amaitzean ekitaldia egingo dute, besteak beste. Udalak ere egin du bertan parte hartzeko deia.

Bertso antzerkia, autodefentsa...

Udalari dagokionez, berriz, Patricia Borinaga Udaleko Berdintasun arloko arduradunak azpimarratu



'Piztu!' antzezlaren eszena bat.

duenez, "adin guztietarako eta mota guztietako jarduerak eta ekitaldiak" programatu dira. "Helburu nagusia, berdintasunean hezteaz eta kontzientziazteaz gain, emakumeak aldarrikatzea eta balioestea da".

Martxoaren 4an izango da lehen hitzordua, 20:30ean antzokian; helduentzako bertso-antzerki saioa izango da. Sarrera doan da, baina gonbidapenarekin joan behar da. Iratxon eskura daitezke.

Martxoaren 8an, berriz, 11:30etik 13:30era Berdintasunerako bidea izena duen Scape Rooma egingo dute, institutuan. Eta martxoaren 10ean, umeei zuzendutako antzerkia izango da, 15:00etan antzokian; Piztu! antzezlana taularatuko dute.

Bestalde, zapatuan, martxoaren 12an, 10:30etik 14:30era Tolarekuan zoru pelbikoaren tailerra eskainiko du Juncal Altzugaraiak. Doan da, baina martxoaren 10a aurretik eman behar da izena udaletxean. Eta domekan, Céline Sciammaren *La película más bella del año* filma proiektatuko dute, amatasunari buruzko fabula.

Azkenik, martxoaren 24an eta 25ean, 09:30etik 12:30era, ahalduntzeko taldeko emakumeei zuzendutako autodefentsa feminista tailerra izango da, gaztelekuan.

Gaur egingo dute osasun zerbitzu publikoa defendatzeko lehen greba eguna

Datozen egunotan, indartu egingo dituzte "Osakidetzak dituen egiturazko arazoak" konpon ditzaten exijitzeko mobilizazioak. Batetik, gaur, barikua, greba egingo dute anbulatorioetan eta otsailaren 28an, berriz, Osakidetzako esparru guztietan. Tartean, bihar, zapatua, manifestazioak egingo dituzte. ELA, LAB, SATSE,

CCOO eta UGT sindikatuek deitu dituzte protestak, "Osasun Sailaren inmobilismoaren eta konponbide ezaren aurrean". Gainera, Iñigo Urkullu lehendakariaren adierazpenei erantzunez -greba egiteko unea ez dela esan du- sindikatuek adierazi dute "Jaurlaritza eta Sagardui sailburua mugitzeko unea dela".



Elkarretaratzea, otsailean.

Alokairuetarako laguntzak

18-35 urteko gazteei zuzenduta daude Gaztelagun programaren laguntzak; asko jota hilero 275 euroko laguntza eskura daiteke

Udaleko Haur eta Gazte Saileko arduradun Patricia Borinagak jakinarazi du Soraluzeko gazteek ere eska ditzaketela etxebizitza alokairuan hartu ahal izateko dirulaguntzak. Eusko Jaurlaritzak eskaintzen ditu laguntza horiek, Gaztelagun programaren barruan, gazteen emantzipazioa bultzatzeko.

Baldintzak

Laguntza horiek 18-35 urte bitarteko gazteek eska ditzakete, honako baldintzak betetzen badituzte: EAEn sei hilabetez jarraian etengabe bizitzea; etxebizitzarik ez izatea jabetzan; alokairu kontratua izatea titular modura edo ko-errentari modura; alokatzen duen etxebizitza ohiko etxebizitza izan behar da; ezin da izan familia loturarik etxebizitza alokairuan ematen duenarekin; alokairua transferentzia bidez ordaindu behar da; alokairua ezin da izan 675 euro baino handiagoa; eskaera banaka eginez gero, urtean 24.500 euro baino gutxiago irabazi behar da eta unitate familiar modura eskatuz gero, 30.000 euro baino gutxiago kobratu behar da (32.000 euro familia ugarien kasuan).

Laguntzen zenbatekoa

Laguntzei dagokienez, berriz, baldintzak betetzen dituztenek

36 urtera arte jaso ditzakete. Hori bai, mugak ere badaude: asko jota, hilero 275 euro emango dute edo ordaintzen den alokairuaren %60 asko jota. Bestalde, ezin izango da laguntza mota hori jaso helburu bera duten bestelako laguntzaren bat jasoz gero edo babes publikoko etxebizitza bateko errentaria izanez gero.

Bizigune

Bestalde, Borinaga zinegotziak gogora ekarri du "epe motzean" alokairuan emateko babes ofizialeko 29 etxebizitza eraiki behar dituela Eusko Jaurlaritzak Pascual Churrucaren orubean eta horietatik %40 gazteei zuzendutakoak izango direla. Horrekin batera, gogora ekarri du, baita ere, etxebizitza hutsak dituzten jabeek Eusko Jaurlaritzaren esku laga ditzaketela etxeok, Bizigune programaren bitartez alokairuan emateko.

Bizigune programaren kasuan, besteak beste, bermatzen da Alokabidek 6 urterako hartzen dituela alokairuan emateko etxebizitzak; hilero, puntualki ordaintzen dela errenta, etxebizitza hutsaren kudeaketa osoa Alokabideren ardurapean egoten dela eta besteak beste, kontratua amaitzean, etxebizitza kontratu hasieran zegoen egoera berberean bueltatuko dutela.

Lau lapurreta salatu dituzte

Otsailaren 7tik 22ra, lau lapurreta gertatu dira herrian. Ertzaintzak zein Udaltzaingoak emandako informazioaren arabera, lehen bi lapurretak Errekaldeko bina garajetan egin zituzten. Batetik 3.000 euro baino gehiagoan baloratutako bizikleta eta 300 euroko bi patinete eraman zituzten. Bestetik, berriz, mekanikako erremintak.

Otsailaren 18an, berriz, Txistu garajejan egin zuten lapurreta. Esandakoaren arabera, balio ekonomiko handia duten erremintak eraman zituzten.

Otsailaren 21ean, Benito altzari-dendako biltegian lapurretan egin zutela jabetu ziren. Handik ere erremintak lapurtu zituzten, balio ekonomiko handikoak. Azkenik, Udaltzaingoak jakinarazi du aste honetan bertan, Gabolatseko bizilagun batek hiru gizon ikusi zituela gauetz Estanko aurrean. Balkoira irten eta arretea eman zienean, ihesi joan zirela kontatu du Udaltzaingoa.



Altzari-dendaren biltegia.



Korrika Batzordean parte hartu duten herritarrak.

Korrika Batzordea martxan

Hamabost entitatek parte hartu zuten Korrika Batzordearen lehengo bileran. Martxoaren 9an batuko dira berriz.

Joan zen martitzenean, herriko taldeetako hamalau ordezkari batu ziren euskaltegian Sorluzeko AEK-k egindako deialdiari erantzunez. Bertan, Korrika kulturalaren egitaraua osatzeko dauden

proposamenak zerrendatu zituzten: film laburren emanaldia, mendi irteera, bertso afaria, musika kontzertua, kantu jira, Korrika txikia, euskara ikasleekin batera egongo litzatekeen ekitaldia...

Garrantzi berezia eman zitzaion apirilaren lean, Korrika herritik pasatuko den egunean, herria girotzeari.

6 kilometro

Kultur ekimenez gain, Sorluzen Korrikak egingo dituen 6 kilometroen salmentaz ere berba egin zuten. AEKko arduradunek jakinarazi zuten, kilometro bakoitzak 450 euroko balioa izango du eta ohikoa den moduan, herriko kilometroak herriko talde eta entitateen artean erosi dira, bakoitzak ahal duen neurriko diru ekarpena eginez. Ondoren, talde bakoitzak izendatzen duen ordezkariak erango du Korrikaren testigua herrian, bakoitzari dagokion zatian.

Hurrengo bilera

Batzordea, martxoaren 9an, arratsaldeko 19:00etan batuko da euskaltegian. Bitartean, herriko taldeek Inaki Korta AEK-ko irakasleari bideratu ahalko dizkiote proposamenak: sorluz@eak.eus emailera idatzita edo 696502198 telefonora deituta.

Hurbiltzen, 9 famiarekin

Jamila, Ane, Bassma, Arija, Anje, Loubna, Arrate, Ali, Ritaj, Aiur... elkartu ziren joan zen egunean Hurbiltzen familia programaren lehen saioan. Ekainera bitarte, hamabostean behin, hainbat jatorritako bederatzi familia batuko dira Gaztetxean, 17etatik 18etara. Saioak irekiak dira eta edozein familia har dezake parte.



"Erronka nagusia errefus kopurua gutxitzea da"

IOSU ARRAIZ ARANBURU DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA

TESTUA ETA ARGAZKIAK

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Iosu Arraiz Aranburu jeltzalea (Elgoibar, 1991) 2019ko uztailearen 26tik Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidentea da. Erakundean, hondakinen gaikako bilketa da bere ardura nagusietako bat. Azpimarratu du, kosta egiten den arren, apurka-apurka herritarrak ari direla ohiturak aldatzen.

Mankomunitatearen 15 milioi euroko aurrekontutik 9 milioi euro bideratuko dira hiri-hondakinen bilketara. Zelan banatzen da herrika?

Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzua komuna da, ez da herrien arabera bereizten. 9 milioi euro horien barruan sartzen dira, besteak beste, inbertsioak. 2019tik 1,3 milioi euro bideratzen dira inbertsioetara, kale garbiketara, administraziora... Hondakin bilketarekin lotuta, aurtengo inbertsioak baliabideak berritzeko izango dira, iaz moduan: kamioiak, konpostagailuak, edukiontziak... **Bilketa selektiboaren datuen arabera, 2017tik (%48,88) 2018ra**

(%53,55) eman zen gaikako bilketan igoera nabarmenena; harrezkero, gutxiago igo da edo bere horretan mantendu da. Zein da helburua?

Igotzen joan da, batik bat, sisteman berrikuntzak sartu izan direnean, adibidez, organikoaren bilketa, errefusarena... Gero, datuak egonkortu egin dira. Hau da zirimiria bezala; jendearen ohitura aldatetetan eragitea ez da batere erraza, poliki-poliki doa bustitzen eta ohitura berriak barneratzen. Hala ere, helburua hazten segitzea da. Bilketa hobetzeko, herritarrei erraztasunak emateko eta eraginkorrago bilakatzeo sistema aztertzen ari gara. Dena den, oro har, datuek hobera egin dute eskualdeko herri guztietan. Gaikako bilketan %55 inguruan gaude eskualde mailan.

Zein kopuru lortu nahi da?

2020rako ezarrita zegoen gaika %40 batzea, hori gaintitu egiten dugu. 2025erako %50a dago ezarrita. Hori ere bete dugu. 2030erako dugin helburua %70erainoko gaikako bilketa lortzea da.

Zer da gehien kostatzen dena?

Ontzi arinak batzea. Sortutako hondakinen artetik ontzi kopurua zenbatekoa den kontuan hartuta, gutxi batzen dugu. Azkenean, ia dena da plastikoa.

Erronka nagusia, berriz, errefus kopurua txikitzea da. **Debagoienarekin konparatuz, ia 20 puntu beherago dago Debabarrena (Debagoieneko gaikako bilketa da %74,54) Aztertu da arrazoiak?**

Eskualde bakoitzak bere garapena egin du hondakinen bilketan. Gipuzkoan daude batzuk guk baino gehiago biltzen dutenak eta beste batzuk gutxiago. Guk gure bidea dugu eta nahi dugu hor sakondu, herritarren, enpresen eta gizarteko beste kolektibo batzuen laguntzarekin. Nik uste dut sisteman baino ohituretan eragin behar dugula. **Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, hemen baxua da gaikako bilketa; berrerabiltzeko ohitura ere bai... Kontzientziazio falta dago akaso?**

Iaz egin genuen kanpaina hondakin gutxiago sortzeko eta berrerabiltzeko... Uste dut bogan dagoela bigarren eskuko



Iosu Arraiz mankomunitatearen egoitzan.

produktuak erostea, adibidez, Internetez. Herrietan ere bigarren eskuko gero eta azoka gehiago egiten dira. Nik esango nuke, orain arte bigarren eskuko arroparik –familiarik kanpokorik- ez genuela ia nahi eta orain gero eta gehiago erabiltzen edo erosten dela. Uste dut badagoela aldaketa. Konpondu, berrerabili eta bigarren eskukoak salerosi egin behar dira. Gero eta gutxiago sortu orduan eta gutxiago izango dugu gaika biltzeko. Hondakinak gaika biltzea azken alternatiba da.

Enpresen hondakinak ere batzen dituzue. Nahikoa birziklatzen dute? Industrialdeetan batzen ditugu egurra, papera, ontzi arinak, bio-hondakinak eta errefusa, hiriko hondakinekin pareka daitezkeenak. Orain,

industrialdeetara bititak egiten ari gara, gogorazteko ezin dutela jarduera industrialarekin lotura duten hondakinak errefusera bota, adibidez, txirbilak, tailer mekanikoetako olio poteak... Horiek dira euren jarduera ekonomikoan sortzen dituzten hondakinak eta bakoitzak bere tratamendua behar du. Hori ez da gure arduren barruan sartzen.

Garbiguneetara zer bota daitezke? Aparailu elektroniko eta elektrikoen hondakinak, pintura latak, olio potoa... Hau da, partikularrek etxeetan sortzen dituzten hondakin arriskutsuak. Gremio txikiek ere erabil ditzakete, adibidez, margolari autonomo batek. Baina mugak daude: 250 kilo asteko, eta, obra hondakina bada –amiantorik gabekoa

"EKONOMIKOKI ETA INGURUMENARENTZAT EZINBESTEKOA DA HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEA"

beti-, 500 kilo astero. Lau garbigune daude: Elgoibarren, Ermuan, Eibarren eta Mutrikun. Eibarkoa eta Elgoibarkoa dira berrienak eta handienak. Ermukoaren kokapena ez da aproposena eta tamaina aldetik ez du horrenbeste erraztasun. Hori hobetu beharra dago. Mutrikukoa, berriz, ondo dago, erdibidean.

Pandemiarekin kendu egin zen edukiontzien txip sistema. Horrek eraginen bat izan du bilketan? Mantendu egin dira datuak. Ez dugu ikusi okerrera egin dutenik. Beraz, zer egin aztertzen gaude orain, ea merezi duen txipa ipintzerik edo frakzio jakinen baten ipintzea...

Bi urte Zaldibarren hondamendia gertatu zenetik; zelan ikusten duzu egoera?

Gure lan errotik kanpo geratzen da Zaldibar. Dakiten pertsonak edo adituek hori argitzea nahiko genuke. Guri dagokigunez, gure hondakinak bideratuta ditugu eta hondakin horietatik ahalik eta gehien aprobetxatzea da asmoa. Helburua da hondakindegietara ahalik eta gutxien botatzea.

Udaberria eta kokoak

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIAK: ARKAITZ ARANA ETA UBANE MADERA

"Artzak urten dau kobazulotik, negua juan da ixa, kolore, kantu eta bizipoz badator udaberrixa" koplak izan da aurten baserri baserri errepikatu dutena. Musika eskolako eta abesbatzako kideek, berriaz, koplak klasikoagoak kantatu dituzte: "Santa Ageda bezpera dugu, Euskal Herriko eguna...". Batak zein besteak, kantuan eta makilarekin lurra kolpatuz iragarri dute neguaren amaiera eta udaberriaren hasiera. Baina bada beste ohitura bat, garai batean inguruko herrietan eta Sorluzen ere egin izan zena, aratosteei lotua: Koko batzea, koko izurriteengandik libratzeko egiten zena. Eibarren eta Elgetan berreskuratu dute. Gurean ere badugu premia kokoak uxatzeko, ez duzue uste?





Proiektuetan buru-belarri

IRISGARRITASUNA, ROBOTIKA, ARRAINAK, INKESTAK ETA MAKINEN MAKETAK

TESTUA ETA ARGAZKIAK: PLAENTXI ESKOLA

Ugaraxoren bigarren atalerako, Plaentxi Eskolako bigarren zikloko ikasleek ikasturtean egindako edo egiten ari diren hainbat jarduera partekatu dituzte. Batetik, irisgarritasuna landu dute. Bestetik, biologia. Robotikan ere murgilduta dabiltza eta baita ere, enpresagintzan.

4. mailako makina sinpleen maketak

Gure herria barrera arkitektonikoz josita dago. Zenbait pertsonak zailtasunak izaten dituzte herriko txoko ezberdinetara heltzeko. Egoera hau kontuan izanik, gure herrian aurkitzen diren puntu beltzak identifikatu ditugu eta irisgarritasuna zer den ikasi dugu. Horrez gain, makina sinpleen funtzionamendua aztertu dugu eta ikasleek taldeka maketa batzuk eraiki dituzte. 4. mailan egindako ekoizpenak erakusketa batean jarri genituen eskolako sarreran.



4. mailakoek egindako makina sinpleen maketen erakusketa.

5. mailakoen erronka: arrautzatik akuariora

Azaro aldera sorpresa handia jaso genuen eskolan, *Danio rerio*ren (zebra arraina) hainbat arrautza heldu zitzaizkigun Valentziatik. Berehala zientzialarien moduan kapela jantzi eta gure arrautzak behatu, ikertu eta



'Danio rerio' arrainak euren ontzian.

zainduz, ondorio zoragarria ateratzea lortu dugu: gure eskolako akuarioa arrainez betetzea.

Zaila izango da zuentzat zenbat arrain dauden zenbatzea, guk hainbat aldiz

zenbatu ditugunez, esan dezakegu 100 arrautza horietatik 29 *Danio rerio* arrain maskota gisa zaintzea lortu dugula. Agian gutxi direla irudituko zaizue, baina jakin ezazue, proiektua egin duten

eskola guztien artean errekorra Soraluzen bete dugula.

Hau guztia irakurri ondoren, ziur aski gure akuarioa ikusteko irrikaz egongo zarete. Eskolara etorri baino ez duzue behar eta sarreran, Javiren bulegoan, topatuko dituzue. Baina gogoratu arrainek eta Javik berak ere lasaitasuna behar dutela, beraz, emozioari heldu eta isiltasuna gorde ;)

Bigarren zikloko ikasleak robotikako munduan murgilduta

Pasa den urtarrilean, bigarren zikloko ikasleak robotikarekin hasi ziren eta kurtsoa bukatu arte horretan arituko dira. Hainbat taldetan banatuta, astero 2 saio pasatzen dituzte bertan.

Proiektu honi esker, ikasle guztiek robotikaren inguruko hainbat gauza ikasteko aukera izango dute. Ikasleek beraien robotak edo asmakizun teknologikoak sortzeko, diseinatzeko, eraikitzeko eta programatzeko aukera izango dute; horretarako, Lego Wedo eta Spike erremintak erabiliko dituzte. Oso gustura ari dira lanean.

6. mailako inkestak egiten

6. mailako ikasleak Soraluzen herriak dituen zerbitzu eta lanbideak ikertzen aritu dira. Ikerketa egin ondoren, hainbat enpresa sortzea erabaki dute, Soraluzek eta Soraluzeko herritarrek izan ahal dituzten beharrei aurre egiteko.

Enpresa sortu aurretik, jakin nahi izan dute herritarrek ideia berri honen aurrean zer nolako erantzuna izango luketen. Horretarako 6. mailako ikasleak kalera irten ziren otsailaren 17an herritarrei beraien enpresa ideien inguruko inkestak egitera.



Bigarren zikloko ikasleak robotikan, Lego Wedo erabiltzen.



Robotikan, ordenagailuarekin lanean.



6. mailako ikasleak inkestak egiten.

GUTUNAK

Sugarren Mende

TERE GUENETXEA

Joan den urtarrilaren 28an, aukera izan genuen Asisko Urmeneta eta Helena Xurio entzuteko, Sugarren Mende liburuaren aurkezpenean eta, beste behin, Asisko eta Helenaren argudioek nahastuta laga naute.

Arlo profesionalean, zeramikari gisa eman ditudan 20 urteetan, gehien saldu den zeramika pieza sorginak izan dira. 10 urte eman ditut sorgin nagusi gisa parte hartzen San Juan suaren gauean edo Udate Gabean. "Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik: sorginak izaten jarraituko dugu". Sorgin dantza dantzatzen. Azken martxoaren 8an aldarrikatu genuen "Gu gara erre nahi izan zutenen bilobak", eta, jakina, nire alde

erotikoan, dastatu dut ni boteretsu sentitzea, fantaseatuz orgia haiekin eta plazerez hegan eginarazten zieten ukendu haiekin, gure gorputz eta sexuen jabe izanik".

Orain, jakin dut Akelarre hitza Inkisizioak asmatu zuela burutu zituzten astakeriak eta ankerkeriak justifikatzeko, gure lurra estrategikoki, politikoki eta ekonomikoki menperatzea helburu bakar zutela.

Kontatu digutenez, sorginkeriaz akusatu zituzten emakume askok, krudelki torturatu ostean ere, jarraitu zuten ukatzen sorginak zirela, eta torturatzaileen eskuetan hil ziren, zer leporatzen zieten ere ez zekitela, ez baitzekiten sorgin berbak zer esan nahi zuten ere.

Baina orain zer? Nola jarrai dezaket bizitza propioa ematen nire bizitza osoan mantendu dudana kontzeptuari? Nola

desegin emakumeen sektore eta belaunaldi bati sinbolo feminista itxura ematea kostatzen zaiguna? Ez nuke nahi hau guztia, gure mitologiaren zatia, ahalduntzen eta jakintsu bihurtzen gaituen alderdi hori, galdu eta erabat ezabatzerik, argi eta garbi izan arren sorginkeria aitzakia hutsa izan zela.

Ia ziur nago, zuen liburuaren zorroztasunaren eta nire ametsen artean, badugula espazio bat elkarrekin lotzen gaituena, hegan egiten jarraitzeko aukera emango diguna... Sugarren Mendek kontatzen duen istorioa ahaztu gabe, baina jakinik gutako askok sorgin izaten jarraitu nahi dugula.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Zer iruditzen zaizu dorre eoliko proiektua?

Karakatetik Akilarrera bi dorre eoliko erraldoi ipini nahi dituzte



AMAIA LASKURAIN

"Ez dut ondo ikusten, Plazentziak duen arnasbide bakarrenetarikoa da. Benetan arduratzekoa da. Denok egin beharko genuke zerbait gure mendigaina zaintzeko eta babesteko. Ez nago eolikoek kontra, baina Karakate ez da toki aproposa jartzeko".



BEÑAT GOENAGA

"Karakate da Soraluzean gelditzen den gauza polit gutxienetarikoa bat eta ez litzateke ukitu beharko. Energia atera egin behar da eta berriztagarria bada hobeto, baina Karakate ez da kokaleku aproposa. Banago apur bat arduratuta".



RAMON IRAETA

"Desastre handi bat da. Ez zait buruan sartzen. Ezustean harrapatu nau, gainera. Ea Udalak zer egiten duen, baina herriaren babesia izango du. Besterik ez daukagu. Gainera, horrek dakarren obra zibila galanta da: goian bidea egin, errepidea aldatu..."



NEREA FAYANAS

"Denok dakigu energia berriztagarriak behar ditugula, baina inork ez ditugu nahi gure herrian. Ni kezkatzen nauena da kalte ekologikoa eta jakin nahi nuke onuraren bat izango duen. Tapia legea indarrean izanda, zaila da proiektua bertan behera lagatzea."

PUNTUA



NEREA ISASTI

Industria aurriak

2005. urtean abandonatua, Soraluzekeko irudi esanguratsuenetarikoa da gaur egun. Bere dimentsio eta kokapenak, Soraluzekeko armagintza tradizioa eramaten gaitu. Asko dira, asko gara, SAPAri so egin eta pena sentitzen dugunok.

Industria aurriak dira. Degradazio irudia transmititzen dute. Gure armagintza historiako aldi agortuaren seinale. Baina, aldi berean, ondare industrialia da, gure ondarea.

Hasieran, 'La Euskalduna'. Ondoren 'The Placencia de las Armas Company'. Gero, 'SAPA'. Eta orain, desagertzear dagoen industria aurria.

Duela hiru urte lagapenean jaso zuen udalak Gabolatseko zubitik eraikin zentralera arteko pabiloia. Orditutik, huts ugaridun dirulaguntzak lortu ditu Udalak bertan egingo den 'proiektua' gauzatzeko. Eta hala ere, huts ugaridun dirutza jarri beharko da.

Hutsik dago SAPA eta degradazio irudia transmititzen du, bai, baina industria aurri hori ezin da edonola birgaitu, ez litzateke edonola birgaitu beharko. Aisialdirako gune bat. Ekonomia berriaren izenean, estetika izenean.

Erromantizismotik hitz egiten dudala badakit, baina XXgarren mende hasierako arkitektura industrialaren adibidea da.

Beste batzuk galdu ziren eta SAPA ere galduko da.



SAPAKo lehen pabiloiko obrak hasi dira

Datozen urteotan, herrian gauzatuko den proiekturik handienetarikoa eta esanguratsuenetarikoa izango da SAPAKo lehen pabiloia zaharberritzea, bai egin beharreko inbertsioari dagokionez baita, azken 17 urteotan, enpresa Andoainera lekualdatu zenetik, esparru hartan egingo den lehen jarduera izango delako ere

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Soraluzeko Udala eta Ubane Madera**.

Azken hilabeteotan, SAPAren lehen pabiloia zaharberritzeko egitasmoa gauzatzeko aurrerapausoak bizkortzen ari dira. Otsaila hasieran, gunea eraberritzeko lan fisikoak hasi zituzten. Zehazki, eraikina saneatzeko lanak egiten hasi ziren. Olio hondakinak jaso dituzte, pabiloi barruan gelditzen diren zaborrak jasoko dituzte eta lurzorua fresatu egingo dute. Lan horiek egin ondoren, saneamendu ziurtagiria prestatuko dute eta, gero, lurzoruaren azterketarekin hasiko dira, haren kutsadura maila zehazteko. 12.244 euroko aurrekontua dute lanok egiteko.

Udarako proiektua idatzita

Lurzoruaren kutsadura azterketari dagokionez, hura ere adjudikatuta dago. Afesa Medioambiente enpresa bizkaitarrak egingo du, gehienez jota, hiru hilabeteko epean eta 11.975,43 euroko aurrekontuarekin (BEZa gehitu barik).

Horrez gain, zaharberritze proiektua idazteko lanak ere badaude esleituta. Urtarrilean adjudikatu zizkion Udalak Bilboko Behark enpresari, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako dirulaguntza baliatuz, 43.500 euroko aurrekontuarekin.

Kasu horretan, arkitektura enpresa bizkaitarrak 2-4 hilabete beharko ditu proiektua idazteko. Eraikinean egin behar diren eraisketak, konponketak eta bestelakoak bertan zehaztuko dira. Uda hasierarako gertu izango da, ezustekorik ezean.



Behark enpresa bizkaitarrak egin duen aurreproiektuaren fotomontajea.

Behin proiektua aurkeztu eta Udalean adostu ondoren, pleguak prestatu behar dira pabiloiaren birgaitze lanak lehiaketa publikora ateratzeko. Lehiaketara aurkezten diren enpresen artean proposamen egokiena egin duen eraikuntza enpresari esleituko dizkio Udalak pabiloia zaharberritzeko lanak.

Teilatuan egitura gardena

SAPAREN lehen pabiloiaren esparruan, estalitako gunea eraiki nahi du Udalak. Asmoa gaur egungo pabiloiaren estruktura mantentzea da, haren izaera industrialak gordetzeko. Goiko muntaiak erakusten duen moduan, egitura mantenduta, teilatua egitura garden bategatik ordezkatzeko proposamena jasotzen du Behark enpresak egindako aurreproiektuak.

Egin beharreko inbertsioari dagokionez, berriz, Udalak egindako kalkuluen eta aurreikuspenaren arabera, milioi bat euro beharko dira esparru hura birgaitzeko.

Kopuru horretatik, dagoeneko dirulaguntza esanguratsua eskuratu du herriko erakundeak SAPAko proiekturako. Hasierako idazte, eraiste eta halako lanak egiteko 76.753,45 euro, adjudikatuta daudenak. Horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenerako Departamentuak 700.000 euroko dirulaguntza aurreikusi du 2022ko aurrekontuetan, pabiloiaren proiektua exekutatu ahal izateko.

Bestalde, burokrazia aldetik ere, Soraluzeko Udalak eskuratu du obra egiteko ezinbestekoa den baimena. Izan ere, pabiloi hartan

SAPA EREMUARI LOTUTA DAGOEN GABOLATSEKO ZUBIA ORDEZKATU EGINGO DUTE

edozein lan egiteko, URA Agentziaren aldeko txostena beharrezkoa da, ibaien alboan egin beharreko lanek aldeko txostena behar izaten baitute, eta hori ere eskuratu du Udalak.

Zubi berria Gabolatsen

Bestalde, SAPAko lehen pabiloia birgaitzeaz gain, eremuari lotuta dagoen Gabolatseko zubia ordezkatu egingo dute. Oraingo zubiak, eraikita dagoen moduan, presa efektua egiten du, ibaiaren ubidea eta ur joana baldintzatuz.

Gai horrekin lotuta, otsailaren hasieran bilera izan zuen Iker Aldazabal alkateak URA Agentziarekin. Haren ondoren, alkateak jakinarazi zuen agentziarengandik lortu zuela zubia zaharbertzeko proiektua idatz dezan konpromisoa.

Edozelan ere, oraindik zehazteke dago zubi berria SAPAren obrarekin batera egin ahalko den ala ez.

la 100 etxebizitza libre

SAPAren gainerako pabiloiei dagokienez, berriz, jabetza pribatukoak dira. SAPA enpresaren jabe den Aperribai familia da Soraluzeko esparru horren jabe.

2019an egin zen Udala pabiloiaren jabe

SAPAK (Sociedad Anonima de Placencia de las Armas) 2005ean lekualdatu zuen industria jarduera osoa Andoaingo plantara (planta hura 1937an sortu zuten). Soraluzeko kanoi fabrika itxi zenetik, 2021ean atera zuten bertan gordeta zituzten makinak. Aurrera begira, berriz, enpresaren jabeak fabrikako hainbat eraikin biltegi moduan erabiltzeko asmoa zeukan, baina bertan izandako hainbat lapurreta tarteko, asmo hori bertan behera laga dute. Bestalde, Plan Orokorrean jasota dagoen aukera, SAPAK dituen bost pabiloietatik lautan etxebizitzak eta garajeak

eraikitzekoa, ez da gauzatu eta oraingo, ez da gauzatzeko asmorik aurreikusten. Azken 17 urteotan ez duenez erabilerarik izan, degradatzen joan da 3.536 m² dituen esparrua.

Lagapen hitzarmena

Soraluzeko Udalak eta SAPAko jabeek 2019ko otsailean adostu zuten pabiloiaren lagapen hitzarmena. Haren bitartez, Soraluzeko Udalak SAPAren lehenengo eraikina bereganatu zuen, alegia, Gabolatseko zubi ondoan hasi eta SAPAren bulego orokorretaraino ailegatzeko dena. "Lorpen handi" modura

aurkeztu zuen hori Iker Aldazabal alkateak. Hark azpimarratu zuenez, "lau urteko lan luzearen fruitua" izan da. Bestalde, 2021eko otsailean, Rafaela Romero diputatu sozialistak 32.000 euroko laguntza eman zuen bere ardurapekoa den Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako sailetik, SAPAren hasierako eraikina aisialdigune bilatzeko proiekturako.

Atzeratzeko eskaera

Oposizioko koalizio EH Bilduk, berriz, eskatu zuen SAPAren sinatu beharreko hitzarmena atzeratzea, batik bat, jakin arte zenbat diru kostako litzatekeen egin beharreko zaharbertzeko obra osoa.



SAPAren eraikinaren profila.

SAPAREN ESPARRUAN IA 100 ETXEBIZITZA LIBRE ETA GARAJEAK ERAIKITZEKO AUKERA DAGO

Herriko Plan Orokorrean jasota dagoenaren arabera, SAParen bulegoen eraikinetatik hasi eta errepideko albo bietako lurzoruan 90-100 etxebizitza libre eraikitzeiko aukera dago. Etxeen promozioaren osagarri izango diren garajeak eraikitzea ere badago jasota -bi solairutako eraikinean joango lirateke garajeak- eta horren guztiaren osagarri izango den parkea, kasu horretan, Udalak eraikiko duena. Dena den, momentuz, ez dago inolako etxebizitza promoziorik aurreikusita bertarako.

Adostasun barik

SAParen lehen pabiloian egingo den proiektuak ez ditu udal ordezkari guztiak ase. Udal Gobernuak osatzen duten Patricia Borinagak (PSE-EE) eta Iker Aldazabalek (EAJ-PNV), besteak beste, defendatu dute Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean jasotakoa egiten ari direla. EH Bilduk, berriz, uste du SAPan parke bat egiteko nahikoa dela 175.000 euro inbertitzea eta proiektuak jasoko duen gainerako dirulaguntza herrian dauden bestelako beharrak asetzeko izan beharko liratekeela uste du. Datozen orriotan jaso dira udal ordezkariak duten alderdi politikoetako kideen iritzia.

"Soraluzek ekintza puntualak baino askoz gehiago behar du"

PATRICIA BORINAGA PSE-EE

Udal Gobernuako kide Patricia Borinaga sozialistak uste du Soraluzek aurkezten zaizkion aukera gutziak aprobetxatu behar dituela.

Udal Gobernuak apustu garbia egin du SAParen proiektuaren alde; PSE-EEren ustez justifikatuta dago parke baten milioi euro pasako inbertsioa?

Soraluzeko PSE-EEtik, Udal Gobernu Taldeko kide garen aldetik, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPOn) garapena defendatzen eta bultzatzen ari gara, zeina udal talde politiko guztiek onartu baitzuten 2017an. Plan horrek gure udalerrian egin beharreko hainbat motatako jarduerak jasotzen ditu. Jarduera gehienak gauzatzea ezinezkoa



da beste administrazio publiko batzuen finantziatorik eta laguntzarik gabe. Beraz, gure iritziz, dauden aukera guztiak aprobetxatu behar dira eta hori egiten ari gara, bai SAParen proiektuarekin, HAPOn ekipamenduetarako aurreikusten den espazio modura, baita Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak Pascual Churrucan eraikiko dituen alokairu sozialeko 29

etxebizitzekin ere; horiek izango dira 2006tik gure udalerrian eraikiko diren lehenak.

EHBilduk, berriz, dio herrian bestelako behar batzuk daudela...

Argi daukagu Soraluzek ekintza puntualak baino askoz gehiago behar duela gizarte- eta ekonomia-biziberritzeko eta hiria-berronertzeko programa integrala behar du, Udalaz gaindiko erakundeen laguntza eta finantzaketa izango duena, hala nola Aldundiarena eta Eusko Jaurlaritzarena. Eta hori da Eusko Legebiltzarrean garatzen ari den Debarbarrena Eskualdea Susepertzeko Ponentzian zehaztu eta aurrera ateratzea espero duguna. Baina, bitartean, Udal Gobernu modura ezin gara ezer egin gabe geratu eta atek jotzen jarraitu behar dugu, proiektuak aurkezten eta lor dezakegun finantzaketa guztia aprobetxatzen, proiektuak gauzatzu joateko.

"Diru asko da bai, baina jausten lagako dugu?"

IKER ALDZABAL ALKATEA

Iker Aldazabal alkateak azpimarratu du SAPA ez ezik, Soraluzek beste bi proiektu estrategiko dituela.

SAPAn estalitako parkea iragarri zenuten, orain, berriz, erabilera anitzeko espazioa. Zer eta zelakoa izango da?

SAPAk herrian izan duen pisua jakinda eta kontuan hartuta herriko fabrika inportanteak - SACIA, Amuchastegui... - eraitsi egin zirela, SAPAren izaera industrial hori eraikinean gorde nahi dugu. Beraz, apustua egiten da eraikinaren egitura metalikoa mantentzeko eta hori aprobetxatuta erabilera anitzeko estalpea egiteko. Faseka doa proiektua. Diru asko da. Lehenengo pabiloia egokitu egin behar da. Behin estalpea ziurtatuta izanda, barrukoa "jantziko" dugu nahi dugun moduan.

SAPArene proiektu estrategikoa da herriarendako?

SAPA bai, baina besteak ere bai. Alkate moduan udalerrriaren ikuspegi integrala daukat. 2017an, Hirigintzako Plan Orokorra alderdi guztien adostasunarekin onartu zenean, zehaztu ziren ondorengo zortzi urteetan Soraluzeko landa eremuko zein eremu urbanistikokoko erronkak. Hori kontuan izanda, martxan jarri ginen. Irukurutzetako biribilgunea eginda dago. Geureganatu genuen Pascual



Churrucaren orubea (404 euroan) eta han alokairu sozialeko 29 etxebizitza egitea hitzartu dugu Jaurlearitzarekin. Era berean, Olaldean jabetzak erosten ari gara. Dena dago bata bestearekin lotuta. Pascual Churrucan eraikiko diren etxebizitzetatik 4 Udalarendako izango dira, Olaldeako bizilagunak berkokatzeko. Era berean, horrek ahalbidetuko du Olaldean etxebizitza libre gehiago eraiki ahal izatea. Eta Udalak Olaldean zenbat eta jabetza gehiago izan, errazagoa izango da eremua urbanistikoki

"BURU-BELARRI GABILTZA BALIABIDE EKONOMIKOAK LORTZEKO LANETAN"

garatzea. Ez da SAPA bakarrik, herri guztia da eta horren barruan hiru eremu horiek, batik bat. Adibidez, Gabolatseko zubia aldatzea lotuta dago SAPAren zaharberritzearekin. Zubi berria autoendako zein oinezkoendako egokitu nahi da. URA agentziak idatziko duen proiektuan zehaztuko da guztia.

Dena den, oposizioak kritikatu egin du SAPAren horrenbeste diru bideratzea.

Noski diru asko dela. Nire galdera da: bestela, zein da alternatiba? Horrela uztea, jausten? Ba ez. Horregatik, azken urteetan, Udal Gobernuaren buru-belarri gabilta Udalaz gaindiko erakundeekin proiektu hori gauzatzeko beharrezkoak diren tramiteak eta baliabide ekonomikoak lortzeko lanetan. Gauzek asko balio dute. Adibide moduan, Debako zubia zaharberritu dute, 2.700.000 euro balio du.

Eta fabrikaren jabeari ezin zaio ezer erreklamatu, adibidez, esparruan aurreikusita dagoen etxeen proiektua garatzea?

Ez da lehen aldia Udalak jabeari erreklamatu izan diola. Horregatik daude leihoak tapatuta, haien kristalak jausi egiten zirelako. Jabeak obligazioa du bere jabetza ondo mantenduta izateko. Bestalde, SAPAko proiektuan Aldundia inplikatu da, Udalak ere ipiniko du bere zatia eta orain, Ibon Aperribairekin batzarra nahi dut lotu. Plan Orokorrak 8 urteko iraupena dauka. Ikusten bada 8 urtean gunea ez dela garatzen, errebisatu egin beharko litzateke.

"Gehiegizko inbertsioa dela deritzogu"

UNAI LARREATEGI EH BILDU

EH Bilduk behin baino gehiagotan plazaratu du kezka Udal Gobernuak SAParen lehen pabiloian egin asmo duen proiektua dela-eta. Batik bat, hara bideratu behar den inbertsio handia kontuan hartuta eta Plan Orokorrean jasotako jatorrizko proiektua aldatu dela ikusita partekatu du ardura.

Zergatik horrenbeste kezka?

Ezagun da eremuak egokitzeko premia badaukala; SAPAk, ordea, ez du borondaterik agertu aktuziorik egiteko. Hori horrela, bere garaian, Udalak akordioa egin zuen SAParekin. Horren arabera, Udalak pabiloia gunea lagapenean hartu zuen, egokitzeko, 175.000 eurotan baloratuta; SAPAk, bere aldetik, diru publiko hori itzultzeko betebeharra zuen, plan orokorrean, lursailerako aurreikusitako gainontzeko jarduketak garatuko zituenean. Orubean jarduketak egitekotan ere, SAPAk ez du ordainduko 175.000 eurotik gorako diru-kopururik; beraz, kontu garrantzitsua da gune horretan zer egin eta zenbat diru inbertitu.

EH Bilduk zer egingo luke esparru hartan?

Egitamuan jasotakoa, gunea parke bilakatu eta Gabolatseko zubia zabaldu oinezkoendako zein



ibilgailuendako egokia izan dadin. Parkea egiteko nahikoa lirateke 175.000 euro. Oraingo proiektu zirriborroak, berriz, milioi bat eurotik gora inbertitzea ekarriko luke. Galdera da: Lehtasunezkoa da horrenbeste diru hortan inbertitzea ikusita herrian badaudela beste premia batzuk? Herritarrek erabiliko lukete hor kokatutako gune estali bat aisialdirako?

Baina horrek ekar lezake Aldundiak agindutako 700.000 euroak galtzea... 700.000 euroak Aldundiko Garapen Ekonomikoko Saitetik

"DIRU HORI GARAPEN EKONOMIKORAKO ERABILI BEHARKO LITZATEKE"

datoz. Teorian garapen ekonomikorako dirulaguntza bat da, baina praktikan parke bat eraikitzeke erabili nahi dute. Gure ustez, diru hori benetan herriaren garapen ekonomikorako erabili beharko litzateke eta SAPako parkea planean aurreikusitako 175.000 euroekin bideratu. Gainera, Aldundiko diruez gain udalak beste 400.000 euro inguru ipini beharko ditu proiektua garatzeko. Arrazoi horiez gain, kontuan izan behar da Udalean dugun egoera ekonomiko kaxkarra. Guzti horregatik diogu gehiegizko inbertsioa dela.

SAParen gainerako eraikinekin zer egin beharko litzateke?

Eremu hori biziberritzea ezinbestekoa zela ikusita, enpresari etxebizitzak egiteko aukera eman zitzaion. Plan Orokorrean jaso zen "ofizinetako" eraikinak mantendu beharko liratekeela etxebizitzak egingo balira ere. Kontuan hartu behar da patrimonio industrial asko galdu dela Soraluzen azken urteetako ekintza urbanistikoetan eta SAPAkoa nolabait mantendu behar genuela argi genuen.

Epe luze baten ez balitz ezer gauzatuko?

Behin herriko Hirigintza Plan Orokorra onartuta, 8 urtetako epea zabaldu zitzaion SAPari proiektua aurrera eramateko. 1a 6 urte pasa dira eta ez dago mugimendurik enpresaren partetik. Gelditzen diren 2 urteetan gaiak berdin jarraitzen badu, Udalak aztertu beharko du zer pauso berri eman dagokion gunea biziberritzeko.



Arrasaten sortu berri den ArrasateBox taldeko kideak.

Boxeo klub berria lehiaketak eta beste

Aste honetan estreinatu da ArrasateBox kluba; bestalde, martxoan, Bergarako ASPACEn hasiko da Ixa Rodriguez boxeolaria

Berritasunez blai iritsiko da udaberrira Ixa Rodriguez boxeolaria.

Batetik, Arrasaten boxeo kluba sortu du ArrasateBox izenarekin eta aste honetan izan dute estreinaldia.

Dagoeneko bi talde entrenatu behar ditu Arrasaten, mistoa bata eta neskena bestea.

Bestetik, martxoan, boxeolari soraluzetarra Bergarako Aspace zentroan hasiko da irakasle, hango Dordoka klubeko hiru

lagun entrenatzen. Gainera, gogotsu ekingo diote, izan ere, Espainiako Txapelketan lehiatzeko asmoa dute, pandemia aurretik egin zuten moduan. Orduko hartan, zilarrezko dominarekin bueltatu ziren etxera, Rodriguezen eskutik.

Soraboxekoak lehiaketara

Soraluzeri dagokionez, berriz, herrian ere baditu berritasunak boxeolariak. Lehen aldiz, Sorabox Klubeko helduen taldeko bi kide Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira, Andoni Kortabarria eta Josu Zalakain bergararrak. Maiatza aurretik jokatu dute txapelketa, baina oraindik ez dute datarik zehaztu. Une honetan, 50 bat ikasle ditu helduen boxeo eskolan, herrikoak zein ingurukoak.

Horrez gain, umeen herriko taldea ere osasuntsu dago, 20 bat umek dihardute-eta astean birritan boxeo eskolak hartzen.

Azkenik, Ixa Rodriguezek jakinarazi duenez, talde berria sortu nahi du Soraluzen, goizez emakumeei boxeo erakusteko.

Apirilaren 9an, Itzulia Soraluzetik pasatuko da, saihesbidetik

Apirilaren 4an hasi eta apirilaren 9an bukatuko da Itzulia 2022. Lasterketaren 61. edizioak sei etapa izango ditu, 882,2 km zeharkatuko ditu eta Ibilbideak Gipuzkoa, Nafarroa, Araba eta Bizkaia zeharkatuko ditu, hurrenkera horretan. Hondarribian hasiko da eta Arraten amaitu. Azken etapa hori da Soraluzetik pasatuko

dena. Antolatzaileek diotenez, Itzuliko etapa nagusia izango da berau.

Hasieratik oso etapa gogorra eta selektiboa izango da, eta Sailkapen Orokorreko txirrindulariek izango dute protagonismoa; talde zabala izatea garrantzitsua izango da etapa kontrolatu eta Arraten gailentzeko.

Eibar-Arrate

Soraluzetik pasatuko den azken etapa horretan, zazpi mendate eta 135,69 kilometroko ibilbidea gainditu beharko dute txirrindulariek.

Eibartik abiatuko da tropela eta Arraten helmugaratuko dira bertara iristea lortzen duten txirrindulariak.

Soraluzeri dagokionez, iaz egin zuen moduan, Gorla igo ondoren pasatuko da Itzulia herriko saihesbidetik, Eibarrerako bidean.

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

PUBLIZITATEA

KLB6
Kalebarran 6
943 57 71 26
Makelari eta modak
modagaitza

BSB *Papa Jans* VERO MODA
ISOLID
ESONICH
new balance

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgerak,
ogitariketak,
ogitariketak,
nadiak,
pizza,
gosiak...
Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 00

MENDIZABAL
okindegia
Ogia - Prentsa - Gosiak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

Carpinteria MANU Aroztegia

Aleak
Bantak
Pordak
Sukaldeak
Tokiak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 26

Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta aitarnak - Administrazio lanak
Tratamendu burokratikoak - Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontabilitate/leakuntza - Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. est. 20190 Soraluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

ARRANO
taberna
Itami eta gozatu
etxeko pintxoak

Etxaburueta 6

KM design
Kira Modurak

943 76 09 85

Pol. Amalago 3 BERGARA

- Disenatueta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-oinarriak
- Logelak
- Zonak
- Aleak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

karuntxok@yaho.es
www.kmdesign.es

Hortz klinika

Erreal 1
Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia
odontologiko, ginekologiko,
odontopediatra, ortodontiko,
ingulterako, estetiko...

Zerbitzu radiologiko onak (DCE)
ekranerra, orto eta tele.

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.501

Katia Gutierez
Odontologoa
K.Z. 48.061.541

MABEL
ILEPAINDEGIA

- Bariantzako keratina tratamendua
- Depilazioa
- Re-sustrairik gabeko permanentea
- Makilajea
- Manikura
- Entzaurak
- Solariuma

Erreal 1
Tel.: 943 75 14 09

IZZUGUIRRE
Igeltzeritza

Erakin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreforma - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 640 867 289

Etxabe Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeko basementako produktuek
- Etxeko tripa eta txistornak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika,
puntu puntako teknologien lan
egiten dugu. Cati-Cam sistema
bertutezko erabileren dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

Jatorria plazarra, bertatik bertara

Batzoki

eguneko menua
sardinetak
kama eta rissolak

egunekoak eta
hamburgerak
enkargu bereziak

Bestela eta
lagun arriko
hostoak

Errealak 943 75 20 35

Bidelagun euskaltzaletasunean





2011ko Aratosteak.

Aratosteetako egitaraua

Udalak eta herriko hainbat eragilek "egitarau mugatua" antolatu dute Aratoste egunetarako.

Joan zen astean aurkeztu zuen Udalak Aratosteetako egitaraua, iragarritz "mugatua" eta "segurtasun neurrietara egokitua" izango dela. Arrazoi horregatik, aurtengo Aratosteetako egitaraua ohikoa baino arinagoa izango da, mozorro proposamenik eta erromeriarik gabekoa. Zapatuan, eguerdi aldera, Urratseko dantzazaleek antolatutako dantza saio irekia egingo da plazan eta bertan, edozeinek izango du aukera jauzi-dantzak eta aratosteetako dantzak dantzatzeko. Arratsaldean, berriz, Gesaltza txarangako musikari arabarrek girotuko dituzte kaleak.

Domekan, umeei zuzendutako puzgarriak ipiniko dituzte eta, azkenik, martitzenean, herriko eta Arrasateko gaiteroak ibiliko dira kalez kale.

OTSAILAK 26, ZAPATUA

Euskal dantzen saio irekia.

Eguerdiko 12:30ean, Plaza Zaharrean.

Ant.: Urrats dantza taldea.

Gesaltza txaranga, kalez-kale.

Arratsaldeko 6etatik 9etara.

Ant.: Soraluze Udal.

OTSAILAK 27, DOMEKA

Haurrentzako puzgarriak.

Goizeko 11:00etatik 13:30era.

Arratsaldeko 5etatik 7:30era.

Bazkideak doan.

Gainontzekoak: 5 euro (Eguna)

/ 3 euro (Arratsaldea).

Ant.: Atxolin gurasoen elkarte.

MARTXOAK 1, ASTEARTEA

Soraluze eta Arrasateko gaiteroak, kalez-kale.

Ate irekiak abesbatzan

Ezoziko Ama abesbatzak ate irekiak antolatu ditu interesa duten herritarrei abesbatzaren jardunaren berri eman eta bertan parte hartzeko aukera eskaintzeko. Hitzorduek, eguazten iluntzeetan izango dira, martxoaren 2an eta 9an, 20:30ean, Batzokiko lokalean. Gaur egun, abesbatzan 16 kide dira, zortzi emakumezko eta zortzi gizona.

Arrizabalaga Oreka Art galerian

Martxoaren 4an hasi eta 30era bitartean, Victor Arrizabalaga (Mañaria, 1957) eskultorearen *Nire liburuak* erakusketa izango da ikusgai Oreka Art galerian. Arrizabalagak burdina eta altzairua erabiltzen ditu bere artelanak sortzeko. 2010ean, puzzle pieza koloretsuekin osatutako eskultura erraldoia erakutsi zuen Soraluzen.

Figuranteak behar dira bideokliperako

Muzak musika taldeak (Joanes Iñurrieta) 30 figurante behar ditu martxoaren 5ean eta 6an *Programaturik* kantuaren bideoklipa grabatzeko Mutrikuko komentuan. Kamiseta zuria eta bakeroak eroan behar dira jantzita. Parte hartu nahi izanez gero idatzi muzaktaldea@gmail.com helbidera.

North School rap kolektiboa

ZORTZI RAPLARIK KOLEKTIBOA SORTU DUTE ETA EIBARREN DUTE EGOITZA

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIAK: NORTH SCHOOL.

Deba bailarako eta Durangaldeko zortzi raplarik North School kolektiboa sortu dute Eibarren, Debabarrena eta inguruko herrietako rap eta hip-hop mugimenduetan diharduten sortzaileak batu eta elkarrekin komunitatea eratzeke helburuz.

Kolektiboan sortzeko ideia duela bost urte sortu zen baina azken hilabeteotan gauzatu da. Kolektiboak zortzi raplari edo talde batzen ditu bere baitan: Renk C.A, Esco, A. White, Emeka, DRJ, Ash, Heiss eta Polo Opuesto. Azken talde honetako kidea da Mikel Oregi Katxo plazentziatarra, M.Rek eibartarrarekin batera.

Katxoren esanetan, kolektiboa raplariak batzetik harago doan kontua da: "WhatsApp taldean zortzi lagun gaude, baina atzean dagoen jendea, kontzertuetara etortzen direnak, grabaketak egiten dituztenak... gehiago dira. Eurak ere North Schoolekoak dira. Gurea ez da kolektibo itxia".

Estudioa Eibarren

Kolektiboak Eibarren egokitu du bere egoitza. "Estudio bat da. Zazpi hilabete pasatu ditugu prestatzen eta egokitu dugu musika sortu eta grabatzeko, bere kabina, ordenagailu, argi, soinu eta abarrekin. Orain, entsaiatzeko



Mikel Oregi Katxo kantuan, zapatuko kontzertuan. NORTH SCHOOL.

elkartu edo kantaren bat sortu behar dugunean, bertara joaten gara. Leku eroso da. Gainera, zabalik dago edozein sortzailerentzat. Adibidez, jendea joaten da pintatzera edo break dance egitera", kontatu du Katxok. "Estudioa sortzeak asko lagundu digu artista moduan hobetzeko. Orain, abestiak egiteko tokia dugu, bertan gaudenez gauzak hobeto irteten dira, gauza berriak probatzeko aukera gehiago ditugu", adierazi du M Rek-k.

"ESTUDIOA SORTZEAK ASKO LAGUNDU DIGU ARTISTA MODUAN HOBETZEKO, GAUZA BERRIAK PROBATZEKO"

Askotariko estiloak

North Schoolen parte hartzen duten taldeek askotariko estiloak lantzen dituzte eta Katxoren ustez aniztasun horrek "asko aberasten du kolektiboaren lana". "Gaur egun rapean adar asko daude: trap, drill, rap underground... eta bakoitzak bere gustukoa lantzen du. Lehen aipatzen zen 'rap purua', baina orain okurritzen zaizuna egin dezakezu, marakak sartu, autotunea...".

Gaiei dagokienez ere raplari bakoitzak ditu bere gaiak eta askotarikoak dira. Katxoren eta Polo Opuestoren kasuan, eguneroko bizitzari lotutako gertaera edo norbere sentimenduekin aipatzearekin batera, gizartean gaizki ikusten dituzten kontuen inguruan ere jarduten dute: "hezkontzaren



Raplariak Eibarko Errebal plazan. NORTH SCHOOL

egoera, denbora eta izerdia lapurtzen duen ekonomia eredu... Egunean daukadan aldartearen arabera edo entzun dudana musikaren arabera gai bat edo bestea lantzen dut”.

Hizkuntzari dagokionez, kolektiboko taldeek sortzen duten ia dena espainolez sortzen dute. Taldekideek



North Schooleko raplariak. NORTH SCHOOL

azaldu dutenez, gazteleraz kantatuta jende gehiagorengana iritsi ahalko direnaren ideiak indar handia du, baina ez dute deskartatzen euskaraz ere kantatzea. Gainera, aipatu dute azkenaldian Chill Mafiak euskaraz ere kantatuta eskuratu duen arrakastak zer pentsatua eman diela, hemengo jendeak euskarazko kantak "propioago" eta "hurbilago" sentitzen dituelako. "Polo Pueston bost kanta sortu ditugu euskaraz, baina oraindik ez

EIBARKO ERREBAL PLAZAKO KONTZERTUA ELKARREKIN ESKAINI DUTEN LEHENA IZAN DA

ditugu publiko egin. Laster publikatuko ditugu”.

Lehen kontzertua Errebalen

Joan zen zapatuan Eibarko Errebal plazan eskaini zuten kontzertua inflexio puntu bat izan da kolektibo gisa hasi duten bidean. "Oso ondo pasatu genuen. Guretzat berezia izan zen, kolektibo moduan elkarrekin egin dugun lehen emanaldia izan delako. Bestela ere, ez zen ohiko saioa izan. Arratsaldeko zortziretan izan zen, ezin zen edan eta, betiko jendeaz gain, beste publiko bat ere etorri zen, gurasoak umeekin eta abar... Guztira ehun eta hogeitamar ikusle inguru batu ziren baina kopurutik aparte gehien gustatu zitzaidana izan zen etorri zirenak gu ikustera etorri zirela”.

Familiaren historia batzen

ZUHAITZ GENEALOGIKOA ETA ARGAZKI BILDUMA OSATZEN DIHARDU

ARGAZKIAK ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Maria Pilar Etxeberria Irusta (Soraluze, 1960) beti izan da argazkizalea baina azken urteotan buru-belarri ekin dio familiako argazkiak batu eta antolatzeari eta zuhaitz genealogikoa ere osatu du: "2019an hil zen ama eta hutsune handia sentitu nuen. Orduan ekin nion baserrian (Arizagan) genituen argazki zaharrak arakatzeari eta zuhaitza osatzeari. Horrek lagundu dit gurasoek lagataka hutsunea betetzen eta dolua eroaten. Gero Covida etorri zen eta zeregina ondo etorri zait".

Sei belaunaldi atzera

Interneten kontsultagai dagoen Dokuklik bilatzailean, Francisco Arizaga, bere birraitonaren izena sartuta abiatu zuen Mariapilarrek familiako zuhaitz genealogikoa osatzeko prozesua. Izan ere, bertan jasota daude 1500etik 1900 arte Gipuzkoan erregistratu diren ezkontza, bataio eta heriotza guztiak. "Lanik zailena da bilatzailean izenak modu egokian bilatzea ze notario bakoitzak bere modura idazten zuen, batek y-rekin, besteak i-rekin etab."

Tartean, familiako "bitxikeria" zenbait ere topatu ditu: "konturatu nintzen ezkontutako senar emazteek abizen berdina zutela eta gero jakin dugu ezkondu zirenak lehengusuak zirela eta ezkondu

ahal izateko kapitulazio baimena delakoa eskatu behar izan zutela Erromara".

Kontuak kontu, hilabetetako lanaren ostean, lortu du atzera egitea seigarren belaunaldira arte, 1709an Bizkaiko Berriatua herrian egin zen ezkontza batera arte. Zuhaitza 2019ko abenduan amaitu zuen eta urte hartako Gabonetan ale bana erregalatu zien familikideei.

Milaka argazki

Mariapiren beste afizioa argazkiak batzea da eta dagoeneko "milaka" ditu batuta eta sailkatuta. Familiako argazkietan ezkontzak, jaunartzeak, ospakizunak eta jatorduak dira gehien ageri direnak baina familiakoez gain baditu San Andres eta Ezoziko auzoetakoak, herrikoak, Kooperatibakoak eta beste hainbat ere. Zaharrena, 1921ekoa. "Beti gustatu izan zaizkit argazkiak, lagundu egiten digutelako iraganari irudi bat jartzen. Ikusten da jazteko modu bat, bizimodua eta horrek sentimenduak eragiten ditu".

Arizagako kasuan kasuan, gainera, argazki asko dituzte, batez ere, 60ko hamarkadatik aurrerakoak. "Gerra osteko urteetan, Pepe Cortijo argazkilaria sarri etortzen zen baserriara argazkiak ateratzera eta familiako lagun ere egin zen. Bestetik, Tio Santik ere bazituen argazki kamera eta Super 8-an



Argazkien bilduma eskutan.

pelikulak grabatzeko filmagailua eta horri esker, garai hartako argazki eta bideo ugari dauzkagu". Horiek digitalizatzen eta antolatzen dihardu Mariapik, intentzio argiarekin: "Denbora asko eskatzen du baina pentsatzen dut guretzako eta ondorengentzako polita dela horiek jasota izatea".

Azkenik, gogoeta hau gehitu nahi izan du: "Gurasoek ez zidaten nik nahi nuen guztia eman baina bai ahal izan zuten guztia! Eta horrenbesterekin nahikoa!".

"PEPE CORTIJO ARGAZKILARIA SARRI ETORTZEN ZEN ARGAZKIAK ATERATZERA"



Paretean esekita ditu amaren zein aitaren partetikako zuhaitz genealogikoak.



(1958) Baserrietako mutilak Gilako jangelan.



(1925) Senideak Abadiñon, San Blasetan.



(1943) Etxeberria Arizaga familia.



(1943) Nieves, Santi eta Isabel.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Urrategi Gantxegi
Otsailaren 26an 61 urte. Zorionak Amama!!! Jarraitxu orain arte bezela, izugarri maitxe Zaitxugu. Julen, Sara eta Zaloaren partez.



Xabier Alberdi Fayanas
Martxoaren 9an 3 urte. Zorionak bihotza!!! Maitasunez betetako 3 urte. Muxu handi bat aita, ama eta Eleneren partez.



Markel Larrañaga Gallastegi
Otsailaren 18an 7 urte. Zorionak mutil haundi! Segi holako mutil alaia izaten! Patxo haundi bat etxekoan partez, batez be Beñaten partez.



Angel Gonzalez
Otsailaren 25ean 67 urte. Zorionak aitxitxa! Ondo pasau zure egunian! Danok batera ospatukou! Asko maitxe zaitxugu! 1000 muxu familia guztiaren partez.



Mikel
Otsailaren 17an 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Familia guztiaren partez.



Lander
Otsailaren 3an 8 urte. Zorionak Lander. Oso ondo pasa zure egunean! Muxu haundi bat guztion partez!



Idoia Basauri Varela
Otsailaren 19an 2 urte. Zorionak gure matraka txikiari!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

JAIOBERRIAK



Urko Lazpita Ormaetxea
Urtarrilaren 19an jaio zen.



Noni Ruperez Miguel
Otsailaren 5ean jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Maria Ariznabarreta Aizpiri
Sebas Elizburu Kortaberria
Camilo Perez Limia
Pilar Belategi Txurruka
Victoria Totorikaguena Garramiola
Maria de Gracia Martinez Hermo
Jose Antonio Gantxegi Aseginolaza
Elvira Tabares Arroyo
Eloy Pombar Iglesias

Jaiotakoak

Urko Lazpita Ormaetxea
Noni Ruperez Miguel

ESKELAK

ESKELA

Pilar Belategi Txurruka

2022ko otsailaren 8an hil zen, 93 urte zituela.



Gugan betiko biziko zarelako maiteko zaitugu.

Etxeokak.



ESKELAK JARTZEKO: 943 75 13 04
edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenarak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak:

- ▶ Arrunta: 75 € / Bazkideek 60 €
- ▶ Handia: 120 € / Bazkideek 96 €

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.




Veronica Gallarraga
Gertukoa eta segurua

Asteleheneretik ostiralera: Santa Ana 13
10:00 - 18:30 eta 17:00 - 19:30 ☎ 945 744 055

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko triboak
Souflaa

Tel: 943 75 10 02

Armendi Jatetxea





**Soraluzeko
Kooperatiba Elkartea**
1910etik zabalik

Arraindegia, janaria,
errapak, etxeko tresnak,
etsera eramateko perbitzua

Asteleheneretik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatik: 08:30 - 13:00

Kalebarren 4
Tel: 943 75 13 45

ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA



eremua
dekoratibokoa
industriala

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30

TXURITXU GOZOTEGIA
Asteleheneretik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbata: 08:30-13:00
Igandekatu: 08:30-14:30



Gosariak, oga,
primia, pasorik,
borbotaik...
Etsera eramateko
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43



**HNOS. BENITO
ANIAK**
MUEBLES-ALTZARIAK

**Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurriera egindako altzariak...**

Santa Ana, 26 - Tel: 943 75 20 47

22.korrika
HITZERIN

bertako

igogailuak | ascensores

GIPUZKOA

943 903 450

EUSKARA, GURE HELBURU KOMUNA

www.bertako.eus

22.korrika

22ek

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik
apirilaren 10era



KILOMETRO BAT GOZATU NAHI?

**JAR ZAITEZ GUREKIN
HARREMANETAN**

ARABA
Arana kalea 30, behea
01002 GASTEIZ
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika 22
64100 BAIONA
iparralde@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleten kalea 16, behea
31001 IRUÑEA
nafarroa@korrika.eus